



2022KO URTARRILAREN 27KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko urtarrilaren hogeita zazpian, iluntzeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Eneritz Miranda Muxika, Felix Urkola Iriarte, Beni Goñi Padura, Iñaki Estensoro Sarasola, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Marije Insausti Onda, Maialen Amundarain Irizar eta Ion Garmendia Iturbe.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Bilkurari hasiera eman eta gai zerrendan ez dagoen gai bat presazko izaeraz sartzea planteatu du alkateak, kiroldegiko 5.1 fasearen obraren kontratazio espedientearen inguruan. Osoko Bilkurak onartu egin du gaia sartzea.

I.- AURREKO AKTA.-

Jarraian, bertaratutako onespenera aurkeztu dira 2021eko azaroaren 25ean egindako ohiko bilkuraren eta 2021eko abenduaren 16an egindako ezohiko bilkuraren aktak.

2021eko azaroaren 25eko ohiko bilkuraren aktari dagokionean, Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du, galdera eta erreguetan, ez dela jasotzen beraien emakumezko zinegotziak plazan zirela osoko bilkura egin zen garaian, herriko feministak egindako deialdira joan zirelako eta horregatik ez zirela bilkuran. Eta hori jasotzea nahi dutela eta bestela ez dutela akta onartuko.

Idazkariak erantzun dio akta honetan jasoko duela esan duena baina ez aurreko aktan.

Hau honela, 2021eko azaroaren 25eko ohiko bilkuraren akta aldeko 7 boto (EAJ) eta aurkako 5 botoz (EH Bildu) onartu da.

2021eko abenduaren 16ko ezohiko bilkuraren akta, bertaratutako guztien aldeko botoz, idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

III.- ETXKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN LANKIDETZA HITZARMENA.-

Gipuzkoako Foru Aldundiak, etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko udal honekin 2018an izenpetuta zeukan hitzarmenaren indarraldia 2021eko irailaren 30ean amaitu zen.

Bi administrazioen helburua da eskumenak berrantolatzen jarraitzea. Hori dela eta, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaiaren barruan, 2021-2023 aldian zehar ELZren baterako finantzaketari eustea planteatzen da, eta horretarako, lankidetzazko hitzarmen berri bat formalizatzea egoki ikusi da.

Hau honela, gaia aztertu ondoren, eta gizarte zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako guztien aldeko botoekin, honako akordio hauek hartu ditu:

- 1.- Etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmen berria, bere espedientean dagoena, onartzea.
- 2.- Alkateari ahalmena ematea hitzarmena Lazkaoko Udalaren izenean izenpetu dezan.

IV.- UDAL LANGILEEN 2022KO ORDAINSARIAK.-

22/2021 Legeak, 2021eko abenduaren 28koak, eta 2021eko abenduaren 29ko B.O.E.n argitaratu zenak, 2022 urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorrak sektore publikoko langileen ordainsariei dagokionean, gehienez ere %2ko igoera baimentzen du.

EUDELeK, 2022eko urtarrilean, zirkular bat atera du horren berri emanez eta sektore publikoko langileen ordainsariak %2 igotzeko gomendioa eginez.

Hori horrela, udal langileen 2022ko ordainsariak, 2022ko urtarrilaren 1etik, %2 igotzea planteatzen da.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du ados daudela proposamenarekin.

Hau guztia honela, gaia aztertu ondoren eta ogasun batzordearen proposamenaren aurrean, osoko bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako akordioa hartu du: udal langileen ordainsariak %2 igotzea, eta igoera 2022ko urtarrilaren 1etik hasita aplikatzea.

V.- KIROLDEGIAREN 5.1 FASEAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIAN ALDAKETA.-

Kiroldegiko 5.1 fasearen obraren kontrataziorako egin den lizitazio deialdian, enpresa batek kontsulta egin du proiektuaren partida baten definizioaren inguruan.

Obra proiektuaren egileari kontsulta hau helarazi zaio eta honek erantzun du proiektuaren partida horretan akats materiala dagoela soilik eta akats hori konpontzeko aldaketa zein den adieraziz.





LAZKAOKO
UDALA

Hau honela izanda, argibide gisa, proiektuaren egileak emandako erantzun hau kontratatzailearen profilean argitaratzea, eta eskaintzak aurkezteko epea beste 3 egun luzatzea dagokio.

Kontratazio espediente honen udal organo eskuduna osoko bilkura denez, erabaki hau hartzea osoko bilkurari dagokio.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du proiektua eta kontratazio espedientearen onarpenerakoan abstenitu egin zirela, honen aurretik hirigintzako herri antolamenduko egitasmo orokorra egin behar zela iritzita, eta orain ere gauza bera esan eta abstenitu egingo direla.

Honen aurrean, eta gaia aztertu ondoren, osoko bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 5 abstentzios (EH Bildu) honako erabakia hartu du:

Kiroldegiko 5.1 fasearen obra kontrataziorako egin den lizitazio deialdian, proiektuaren partida honen definizio aldaketa ohar moduan kontratatzailearen profilean argitaratzea eta eskaintzak aurkezteko epea 3 egun luzatzea.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) Infantadu Dukearen hitzarmenari jarritako alegazioari buruz galdetu du eta adierazi du oraindik ez dutela erantzunik jaso.

Alkateak erantzun dio alegazioa aholkularitza juridikoa ematen duenaren mahaian dagoela gaia eta erantzuna izango dela.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, iluntzeko zazpiak bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

